

Tramitea: Telealarma**Definizioa / Norentzat:**

- Telealarmaren helburua da bizi-kalitatea hobetzea, eta horretarako, egun guztian zehar, jai egunetan ere bai, SOS-DEIAK zerbitzuarekiko konexio automatikoa eskaintzea.
- Telealarma zerbitzua 65 urtetik gorako edozein pertsonak eskatu ahal izango du. Pertsona hori bakarrik bizi beharko da, edo ordu asko igaro beharko ditu bakarrik.

Tramitea non egin:

Saila: Gizarte Ongizate Saila

Helbidea: Foruen plaza, z/g

Telefonoa: 943-74.10.08

Faxa: 943-74.37.36

Helbide elektronikoa: ongizatea@elgoibar.net

Ordutegia: 8:00etatik 14:00etara

Aurkeztu beharreko agiriak:

- NANaren fotokopia
- Errenta aitorenaren fotokopia, edo diru sarreraren nahiz jasotako pentsioaren ziurtagiria (bizikidetzaren unitatea osatzen duten kide guztiek aurkeztu beharko dute).
- Medikuen txostena
- Aurrezki Kutxa edo Banketxearen kontu zenbakia.

Prezioa / Tasak:

Horren kostua honela ordainduko da:

- Eskatzailearen eta haren bizikidetzaren unitatearen egoera ekonomikoa kontuan izanik, erabiltzaileak ordaindu beharreko portzentajea ezarriko da.
- Kostu errealekiko aldea, baldin bada, behinik behin, Udalak ordainduko du.

Bestelakoak:

NOLA DABIL?

Zerbitzua funtzionarazten duen sistemak 2 elementu ditu:

- Etxean bertan jarritako ekipoa 1.
 - Medailoi 1. Medailoi hori BETI aldean eraman beharko duzu, etxean zauden bitartean.
- Ekipoa etengabe SOS-DEIAK zerbitzuarekin konektatuta egongo da. Larrialdiren bat baldin bada, ekipoan edo medailoian dagoen botoia saka ezazu.
- Segundo batzuk barru, SOS-DEIAK zerbitzuko langileek zure deia erantzuniko diote, eta zer gertatzen ari den galdetuko dizute.
- Zuk hala eskatuz gero, operadoreek senideren bati edo zure etxeko giltzak dituenari dei egingo diote, zuri laguntzera joan dadin.
- Beharrezkoa baldin bada, mediku talde batekin harremanetan jarriko zaituzte.

ERABILTZAILEEK HARTUTAKO KONPROMISOAK:

- Zerbitzua era egokian erabiltzea.
- Ekipoa zaintzea eta egoera onean edukitzea
- Konexioa ezartzeko egin diren instalazioak ez aldatzea.
- Instalaturako ekipoa inola ere ez uztea edo saltzea.
- Ezarritako baremoaren arabera, dagokion kuota ordaintzea.
- Gertatzen diren aldaketa edo baja guztiak (heriotza, egoitzaren batean sartzea, helbidea aldatzea...), hilabeteko epean, Udaleko Gizarte Ongizate Sailari jakinaraztea.
- Ekipoa jartzeko nahiz kentzeko, instalatzaileei etxean sartzen uztea. Larrialdi egoeraren bat gertatzen baldin bada, eta SOS-DEIAK zentroak egokitzen jotzen badu, salbamendu, herri segurtasun edo osasun erakundeei etxean sartzen utzi beharko zaie, horrela, beharrezko laguntza eskaini ahal izateko.